



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Lixiba usaina

Udaberria beilategian lehertu zaigu. Eta hemen ez da gereziondorik loratu, ez da kukurik hasi kantuan, ez da kolorerik piztu: hemen ez dago urtarorik, lixiba usaina besterik ez. Mendi ize-nez izendatutako gelaxkak baino ez daude hemen, eta ate bakoitzaren parean senideak, lagunak negarrez, mutu, izenik ez zeukan heriotza horri nahi ez zuten izen bat atxikita eta hemen gaude gu ere, denoi iristen zaiguna guri ere iritsiko zitzaigula ahaztuta genuenok hemen gaude, lixiba zaurietara zuzenean bota baligute bezala.

Heriotzarik ez zen lehen, eta baldin bazen ezkutuan egon behar zuen. Burusoiltzen hasitako akuria basoan utzi zutela esango ziguten gurasoek, eta guk bagenekien baso hura ez zela etxe pareko baso bera; hara ez geneukala joaterik baina zegoen lekuan zoriontsuago egongo zela etxeko kaiolan baino. Edo haurrak ginela auzoko amona «beste etxe batera» joan zela esango ziguten; loreak leihoetan eta zakurra atarian utzita «beste etxe batera» bere borondatez ez zela joango bagenekien arren ez genuen galderarik egingo. Bagenekielako isiltasun bat izango genuela erantzun moduan. Eta isiltasunaren atzean zegoenak ikaratu egiten gintuen gu ere. Amak kontatzen zigun garai batean hildakoak etxean edukitzen zirela eta bertara joaten zirela auzotarrak azken agurra ematera. Baina guk ez dugu esaten zigunaren neurria ulertu gaur arte.

Gaur beilategian baikaude. Eta hainbeste maite izan duguna daukagu kristalaren beste aldean, begiak itxita. Eta bere gorputza den arren hutsik dago; bere begiek ez dute begiradarik, bere ahoak ez du ahotsik, bere azalak ez du usainik. Gorputza alokairuan hartutako etxe bat balitz bezala. Urteetan pilatutako liburuak kaxetan sartu eta eraman egingo ditugu apalategietatik; ez dago posterrik hormetan, ez jakirik hozkailuan; arropak desagertu egin dira esekitokietatik

eta hormak baino ez dira geratu: behinola gurea izan zen etxeak ez du jada gure usainik, gure pausuen hotsik, gure kafearen lurrunik. Gorputzak ere alokairuan hartzen ote ditugun otu zait. Baina lixiba usaina sartu zait sudurzuloetatik pentsamenduataraino. Bata bestearen atzetik datoz lagunak eta senideak doluminak ematera eta nik irribarre ortopediko hau baino ez daukat, esaldi ortopediko hauek besterik ez esker moduan: eta «zer moduz» galdetzen didatenero lixiba usaineko hitzak botatzen ditut, «guri egokitu zaigu» edo «aterako gara honetatik» adibidez, benetan zer esan nahi dudan ez dakidan arren: beti hitzak estutzen bihurritzen zukutzen aritu naizen honek mina baino ez dudalako sentitzen gorputzeko milimetro karratu ba-

koitzean, eta logaleak puztutako begiok ez dute parean daukaten aurpegirik gordetzen, egun euritsu bateko tantak leihoetan bezala irris-tatzen dira pertsonak, koloreak eta formak nire kristal hautsietatik eta zentzuzko zerbait esan nahi nuke, zin dagit zentzuzko zerbait esan nahiko nukeela, baina ze hitz da barruak sagar ustela arrek nola jaten ari zaidana?

Inork ez zidan une honi buruz hitz egin; hau ere bizitzaren parte ez balitz bezala ibili naiz urteotan, axolagabe, eta orain aurrez aurre zaude kristalaren bestaldean baina jada ez zara zu. Eta beilategitik atera naiz arnasa hartzera eta jendetza dago geltokian Hernanira parranda egitera eramango dituen autobusaren zain; aldame-neko dendatik poltsak moztuz beteta atera dira haurrak eta autoak joan eta joan ari dira N-1ean; tren bat abiatu da estaziotik eta ni geldinago beilategiko atean, eta bizitzak aurrera jarraitzen du bere axolagabekeria guztiarekin nire eta, batez ere, zure zain geratu gabe: geldirik dago eskumuturreko erlojua eta hemen igarotako orduen pisua daramat bizkarran, eta zure ahotsaz oroitu nahi dut, zure oroitzapen guztiei eutsi nahi diet, zure usainei. Baina lixiba sartu zait sudurzuloetatik. •



Udaberria beilategian lehertu zaigu.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS